

AZKUE SARIAK-2013

A mailako lan sarituak

“R.M. Azkue” sarian A Mailako sariak erabakitzeko epaimahaia Yolanda Arrietak, Igone Etxebarriak eta Antton Irustak osatu dugu. Hiruron artean lanak aztertu eta iritziak eztabaidatuta, sariak honetara banatzea erabaki dugu.

NARRAZIOA

Narrazioari dagokionez, lan hauek aukeratu ditugu saritzeko.

1. saria: MUNDIALA! izeneko lanareztat. Idazlanari indarra, baikortasuna eta sentiberatasuna ikusi diogu; mezu aldarrikatzaila dakar tonua galdu gabe; ondo idatzia dago, erritmo biziz eramana amaiera arte. Ipuinean erritmoa eta estiloa dira nabarmenenak.

2. saria: ZINTZOA IZATEKO IPUINA. Lan honetan ipuinaren barruan beste kontakizun bat dakar, baina ondo josita. Ondo idatzita dago, hiztegi eta joskeraren aberatsez lagunduta.

Amaieran, gainera, irakurlea ustekabearen harrapatze ahalegina dago.

3. saria: MARTINAREN IBILBIDEA. Idazleak kasu honetan gaurko gaiak darabiltza: kooperazioa, kulturen arteko ezberdintasunak, immigrazioa... Gai sozialak oinarri dituzten kontakizunen arteko bat dugu. Narrazio-elkarrizketa alternantziaren bitartez ondo eramana dagoela iritzi diogu.

OLERKIA

Hona orain olerkien arteko hiru sariak zeintzuk diren, eta bakoitzean zer baloratu dugun:

1. saria: EGUNSENTIA. Testu indartsua da; edertasuna, erritmoa, hiztegi aberatsa, sententziak agertzeko ahalmena eta amaiera baikor borobila ditu. Poesia hutsa.

2. saria: EZER EZ DA BETIKO. Mailaz mailako progresioan, erremate indartsu baterantz ehunduriko olerkia da. Deigarriena amaiera da, aurreko guztiaren laburpen indartsua.

3. saria: PARKEA. Deskripzio xumez, dotorez eta sinesgarriz osaturiko hitz-joko jolasgarria. Egoera arrunt batetik abiatuta, herri kantuetako ekintzak metatzeko teknikari helduta, amaiera deigarria eman nahi izan zaio.

Eta hala jasota gera dadin, behean sinatzen dugu epaimahaiko hiru kideok, Bilbon, 2014ko otsailaren 12an.

Yolanda Arrieta

Igone Etxebarria

Antton Irusta